## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

*Diputatu Nagusiaren 1/2011 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 28koa, Diputatu Nagusiaren Kabineteko diru laguntzei buruzko espedienteen hainbat tramite bitarteko elektronikoen bidez egiteko obligazioa arautzen duena.*

Irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak araututa utzi du bitarteko elektronikoen erabilera Foru Administrazioaren eremuan, betiere ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, ezarritakoaren barruan.

Bitarteko elektronikoen erabileran bete beharreko printzipioen barruan, aipatu foru dekretuaren 3. artikuluak esaten du herritarrentzat borondatezkoa izango dela bitarteko horiek erabiltzea Administrazioarekiko euren harremanetan.

Alabaina, printzipio horrek badu salbuespen bat, eta da Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuek, dagokion foru diputatuaren foru agindu bidez, Administrazioarekiko harremanak bide elektronikoz bakarrik izateko obligazioa ezarri dezaketela, beren gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik, beren lanbideagatik edo behar bezala frogatutako beste arrazoi batzuengatik, beharrezko bitarteko teknologikoak eskura dituzten pertsona juridikoak edo pertsona fisikoen taldeak direnean.

Salbuespen horren garapen gisa, aipatutako foru dekretuaren 33. artikuluak dio aipatu obligazioa ezartzen duen foru aginduak gutxienez honako puntuak finkatu beharko dituela:

a) Zein komunikaziori aplikatzen zaien obligazioa, berariaz adierazita Administrazioaren jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egitea edo erregistro elektronikoa erabiltzea obligazio horren barruan sartzen diren edo ez.

b) Zein bide elektroniko erabili behar den.

c) Sinadura elektronikoko zein sistema erabil daitezkeen.

d) Zein pertsona, talde edo entitate dauden behartuta.

Horrez gain, dio foru agindua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta egoitza elektronikoan argitaratu beharko dela.

Asmo horrekin, foru dekretu honek bitarteko elektronikoak erabiltzeko obligazioa arautzen du, diru laguntzekin lotutako zenbait tramitetarako, tamaina bateko enpresentzat eta entitateentzat, zehazki: Diputatu Nagusiaren Kabinetearen diru laguntzen espedienteetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan tramiteak egiteko bidea ematen bada eta dagokion laguntza programaren oinarri arautzaileetan hala aurreikusita badago; eta obligazio hori ezartzen die, hain justu, beren tamaina eta ahalmen ekonomiko direnak direlako bitarteko teknologiko horiek erabiltzeko moduko baliabide tekniko eta pertsonalak dituztenei.

Hortaz, irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duenak, 33. artikuluan ezarritakoa garatze aldera, hau,

XEDATZEN DUT

*1. artikulua. Diru laguntzei buruzko espedienteetan zenbait tramite bitarteko elektronikoz egitera behartuta dauden enpresa eta entitateak.*

1. Ondorengo enpresak edo entitateak behartuta egongo dira bitarteko elektronikoak erabiliz egitera Diputatu Nagusiaren Kabinetearen diru laguntzen espedienteetako tramiteak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan

## DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

*DECRETO FORAL del Diputado General 1/2011, de 28 de enero, por el que se regula la obligación de realizar por medios electrónicos determinados trámites de los expedientes de subvenciones del Gabinete del Diputado General.*

El Decreto Foral 23/2010, de 28 de setiembre, regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, dentro del marco establecido por la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los servicios públicos.

El artículo 3 de dicho Decreto Foral, que regula los principios informadores en la utilización de medios electrónicos, establece que será voluntaria para los ciudadanos la utilización de dichos medios en sus relaciones con la Administración.

No obstante, dicho principio tiene una excepción, ya que los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa pueden establecer mediante orden foral del o de la diputada foral correspondiente la obligatoriedad de comunicarse con la Administración, utilizando sólo medios electrónicos cuando se trate de personas jurídicas o colectivos de personas físicas que por razón de su capacidad económica o técnica, dedicación profesional u otros motivos acreditados tengan garantizado el acceso y disponibilidad de los medios tecnológicos precisos.

Como desarrollo de tal excepción, el artículo 33 del Decreto Foral dispone que la orden foral que establezca dicha obligación deberá especificar como mínimo los siguientes extremos:

a) Las comunicaciones a las que se aplique, con expresa indicación de si comprende la práctica de notificaciones administrativas por medios electrónicos y/o la necesaria utilización del registro electrónico.

b) El medio electrónico de que se trate.

c) Los sistemas de firma electrónica que puedan utilizarse.

d) Las personas, colectivos o entidades obligadas.

Además, dispone que la orden foral deberá publicarse en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa y en la sede electrónica.

Con este propósito, el presente Decreto Foral establece y regula la obligatoriedad de la utilización de medios electrónicos en determinados trámites de los expedientes de subvenciones del Gabinete del Diputado General que se incluyan en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa y que así se prevea expresamente en las bases reguladoras del programa de ayudas de que se trate, para aquellas empresas o entidades que dado su tamaño y su capacidad económica y técnica, disponen de los recursos técnicos y humanos para acceder a dichos medios tecnológicos.

Por lo tanto, en desarrollo de lo establecido en el referido artículo 33 del Decreto Foral 23/2010, de 28 de setiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral,

DISPONGO

*Artículo 1. Empresas y entidades obligadas a realizar determinados trámites en los expedientes de subvenciones por medios electrónicos.*

1. Las siguientes empresas o entidades estarán obligadas a efectuar a través de medios electrónicos los trámites de los expedientes de subvenciones del Gabinete del Diputado General que se incluyan en la sede electrónica

(https://www.gfaegoitza.net) tramiteak egiteko bidea ematen bada eta dagokion laguntza programaren oinarri arautzaileetan hala aurreikusita badago.

a) Jarduera ekonomiko erregularra duten enpresak edo entitateak, duten forma juridikoa dutela, hamar lagun edo gehiagori lana ematen badiote eta urtean 2.000.000 eurotik gorako fakturazio bolumena edo balantze orokorra izaten badute.

Aurreko paragrafoan aipatutako enpresen edo entitateen tamaina zehazteko orduan, lanean ari den jendearen kopurua, finantza kopuruak eta erreferentziatzat hartuko den aldia kalkulatzeko, hau izango da oinarria: Europar Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioa, mikroenpresak eta enpresa txikiak eta ertainak definitzeari buruzkoa (Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala L 124/36 2003/05/20).

b) Enpresak edo entitateak, beren tamaina kontuan hartu gabe, Oinarri Teknologikoko Enpresa Berritzat (OETB) jotzen badira Europar Batzordearen 2008ko abuztuaren 6ko 800/2008 Erregelamenduaren 35 atalean ezarritakoaren arabera (Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala L 214/3 2008/08/09).

2. Zehazki, 1. atalean aipatu enpresek eta entitateek laguntza eskaerak, diru laguntza duten jarduketen egiaztagiriak eta enpresak edo entitaeak nahi duen edo eskatzen zaion beste edozein dokumentu osagarri aurkeztu behar dituzte bitarteko elektronikoak erabilita, aipatutako egoitza elektronikoan aurkezteko modua baldin badago.

3. 2. atalean ezarritako obligazioak berekin dakar erregistro elektronikoa erabiltzea foru dekretu honen 3. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki; aitzitik, ez dakar jakinarazpenak bide elektronikoz jasotzea, non eta foru agindu bidez ez den bestelakorik ezartzen.

4. 2. atalean adierazi aurkezpen edo tramiteak egiteko, horretara behartuta dauden enpresa eta entitateek sinadura elektroniko aitortua edo irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretuaren 3. artikuluan araututako pasahitza erabili beharko dute. Edonola ere, pertsona fisikoek nortasun agiri nazionalari erantsitako sinadura elektronikoko sistemak erabili ahal izango dituzte.

Ondorio horietarako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan unean unean jasotzen den ziurtagiri elektroniko aitortuen zerrendan agertzen den edozein erabili ahal izango da.

*2. artikulua. Diru laguntzen eskaerak eta diru laguntzei buruzko espedienteekiko bestelako tramiteak bitarteko elektronikoz egiteko baldintza orokorrak.*

1. Foru Aldundiaren https://www.gfaegoitza.net egoitza elektronikoan sartuta dauden diru laguntzetarako eskaerak eta bestelako tramiteak bide elektronikoak erabiliz egiteko garaian, hala egiteko obligazioa aurreikusten duen laguntza programaren oinarri arautzaileetan ezarritakoa bete beharko da. Zehazki, laguntza eskaerak aurkezteko epea eta diru laguntza duten jarduketen egiaztagiriak aurkeztekoa, aipatu den obligazioa jasotzen duen araudi espezifikoan ezarritakoak izango dira.

2. Aipatutako bitarteko elektronikoen erabilerari dagokionez, aplikagarriak izango dira Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, Foru Administrazioaren aurrean egin beharreko jarduketetan nortasuna eta ordezkaritza egiaztatzea arautzen duen irailaren 12ko 40/2006 Foru Dekretua eta foru dekretu ebazpen honetan ezarritakoa.

https://www.gfaegoitza.net de la Diputación Foral de Gipuzkoa y que así se prevea expresamente en las bases reguladoras del programa de ayudas de que se trate:

a) Aquellas empresas o entidades que, independientemente de su forma jurídica, ejerzan una actividad económica de forma regular y ocupen a 10 o más personas y tengan un volumen de facturación o balance general anual que supere los 2 millones de euros.

A efectos de determinar el tamaño de las empresas o entidades señaladas en el párrafo anterior, el cálculo de los efectivos, los importes financieros y el período de referencia se realizará de acuerdo a la Recomendación de la Comisión Europea, de 6 de mayo de 2003, sobre la definición de microempresas, pequeñas y medianas empresas (Diario Oficial de la Unión Europea L 124/36 de 20-05-2003).

b) Las empresas o entidades que, independientemente de su tamaño, tengan la consideración de Nuevas Empresas de Base Tecnológica (NEBT), de conformidad con lo establecido en el artículo 35 del Reglamento 800/2008 de la Comisión Europea, de 6 de agosto de 2008 (Diario Oficial de la Unión Europea L 214/3 de 9-08-2008).

2. En particular, las empresas y entidades citadas en el apartado 1 estarán obligadas a presentar por medios electrónicos las solicitudes, la documentación justificativa de las actuaciones subvencionadas y cualquier otro tipo de documentación complementaria que deseen o les sea requerida, para las cuales esté habilitada su presentación en la referida sede por medios electrónicos.

3. La obligación establecida en el apartado 2 anterior implica la utilización del registro electrónico conforme al procedimiento establecido en el artículo 3 del presente Decreto Foral; no implicará la recepción de las notificaciones por medios electrónicos, salvo que por orden foral se disponga otra cosa.

4. Para la presentación y realización de los trámites referidos en el apartado 2, las empresas y entidades obligadas deberán utilizar la firma electrónica reconocida o la clave operativa regulada en el artículo 3 del Decreto Foral 40/2006, de 12 de setiembre. Las personas físicas podrán utilizar, en todo caso, los sistemas de firma electrónica incorporados al Documento Nacional de Identidad.

A tales efectos, podrán utilizarse los certificados electrónicos reconocidos, cuya relación figura, en todo momento, en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Artículo 2. Condiciones generales para la presentación de solicitudes de subvención y la realización de otros trámites relacionados con los expedientes de subvenciones por medios electrónicos.*

1. La presentación por medios electrónicos de solicitudes de subvención y la realización de otros trámites que estén incluidos en el portal de subvenciones de la sede electrónica https://www.gfaegoitza.net, se hará de acuerdo con lo establecido en las bases reguladoras del programa de ayudas que prevea expresamente dicha obligación. En particular, el plazo de presentación de las solicitudes de subvención y el de la documentación justificativa de las actuaciones subvencionadas serán los que estén establecidos en la dichas bases reguladoras.

2. Con respecto a la utilización de los citados medios electrónicos, será de aplicación el Decreto Foral 23/2010, de 28 de setiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral, el Decreto 40/2006, de 12 de setiembre, de acreditación de la identidad y la representación en las actuaciones ante la Administración Foral y el presente Decreto Foral Resolución.

*3. artikulua. Diru laguntzen eskaerak eta diru laguntzei buruzko espedienteekiko bestelako tramiteak bitarteko elektronikoz egiteko prozedura.*

1. Diru laguntzen eskaerak eta diru laguntzei buruzko espedienteekiko bestelako tramiteak bitarteko elektronikoz egiteko, honela egin beharko dute enpresek eta entitateek:

Lehenengo. Foru Aldundiaren https://www.gfaegoitza.net egoitzan dagoen diru laguntzen atarian sartu, eta eskuratu nahi duten laguntzaren programa hautatu.

Bigarren. diru laguntzen aplikazioan sartu «Internet bidezko eskaera» ataletik abiatuta, eta bertan ematen diren jarraibideak bete.

Hirugarren. sinadura elektroniko aitortua erabiliz gero, txartel kriptografikoa txartel-irakurgailuan sartu eta PINa markatu markatu autentikatze aldera; gauza bera aplikazioan «sinatu» aukera agertzen denean; edo pasahitza erabiliz gero, identifikazio zenbakia eta egiaztapen pasahitza sartu.

2. Prozedura horri jarraituz egiten den aurkezpenak, aurrez aurreko aurkezpenerako dagokion araudian ezarrita dauden ondorio eta epe berberak izango ditu.

3. Diru laguntzen eskaerak eta diru laguntzei buruzko espedientearekin lotuta dauden bestelako tramiteak bitarteko elektronikoz egiteko moduak Gipuzkoako Foru Aldundiko https://www.gfaegoitza.net egoitza elektronikoan den diru laguntzen atarian aurreikusiko diren hauetakoren bat izango da:

— «PDF» betegarri bat.

— Formulario bidez, hori betez eta aurkeztuz.

— Fitxategi bidez, fitxategiak bidalita. Kasu honetan, bidaltzen diren fitxategiek aurrez ezarritako diseinu fisikoak bete beharko dituzte.

4. Eskaerari erantsitako dokumentazioak, egiaztagiriek edota edozein dokumentazio osagarrik jarraian adierazitako formatuen eta tamaina mugaketen araberakoa izan beharko dute (edota unean unean egoitza elektronikoak adierazitakoak):

— Onartutako fitxategien formatuak: Doc, docx, dwg, gif, jpeg, jpg, odb, odc, odf, odg, odi, odm, odp, ods, odt, otp, ots, ott, pdf, png, pps, ppt, rtf, stc, sti, stw, sxc, sxi, sxw, tif, tiff, txt, xls, xlsx.

— Erantsitako fitxategi bakoitzaren tamaina handiena: 10MB.

— Erantsitako fitxategi guztien gehienezko tamaina: 25MB.

5. Tramiteen transmisio elektronikoan akats formalak antzematen badira, sistemak berak horren berri emango dio enpresa edo entitate eskatzaileari, errore mezuak helaraziz, behar den eran zuzendu ditzan, zuzen badaitezke.

*Xedapen gehigarria.*

Salbuespen gisa, dagokion laguntza programaren ardura duen Diputatu Nagusiaren Kabineteko buruak baimena eman ahal izango die foru dekretu ebazpen honen 1. artikuluko 1. atalean aipatutako enpresa edo entitate batzuei, atal horretan jasotakoa ez bezalako aurkezpen bideak erabil ditzaten, eta horretarako, behar diren jarraibideak emango ditu.

*Artículo 3. Procedimiento para la presentación por medios electrónicos de solicitudes de subvención y la realización de otros trámites relacionados con los expedientes de subvenciones.*

1. Para la presentación por medios electrónicos de solicitudes de subvención y la realización de otros trámites relacionados con el expediente de subvenciones, las empresas y entidades deberán ajustarse al siguiente procedimiento:

1.º Acceder al portal de subvenciones ubicado en la sede electrónica https://www.gfaegoitza.net y seleccionar el programa de ayudas al que desea acogerse.

2.º Acceder a la aplicación de subvenciones a partir de la sección «Haga su solicitud por Internet» y seguir las instrucciones que se señalan en la misma.

3.º En caso de utilizar firma electrónica reconocida, introducir la tarjeta criptográfica en el lector de tarjetas e introducir el PIN a efectos de autenticación del usuario, así como cuando en la aplicación se muestre la opción «firmar»; y en caso de utilizar clave operativa, introducir número de identificación y clave de autenticación.

2. La presentación efectuada con arreglo a este procedimiento tendrá los mismos efectos y plazos que los que la normativa reguladora haya establecido para la presentación presencial.

3. La presentación por medios electrónicos de las solicitudes de subvención y la realización de otros trámites relacionados con el expediente de subvenciones podrá efectuarse a través de alguna de las siguientes formas que se habiliten en el portal de subvenciones de la sede electrónica https://www.gfaegoitza.net de la Diputación Foral de Gipuzkoa:

— Mediante «PDF» rellenable.

— Vía formulario, mediante la cumplimentación y presentación del mismo.

— Vía fichero, mediante transmisión de ficheros. En este caso los ficheros transmitidos deberán ajustarse a los diseños físicos establecidos.

4. La documentación que se adjunte a la solicitud, la documentación justificativa y cualquier otra documentación complementaria deberá ajustarse a los formatos y limitaciones de tamaño que se indican a continuación, o a la que en cada momento se indique en la sede electrónica:

— Formato de ficheros permitidos: Doc, docx, dwg, gif, jpeg, jpg, odb, odc, odf, odg, odi, odm, odp, ods, odt, otp, ots, ott, pdf, png, pps, ppt, rtf, stc, sti, stw, sxc, sxi, sxw, tif, tiff, txt, xls, xlsx.

— Tamaño máximo de cada fichero adjunto: 10MB.

— Tamaño máximo total del conjunto de ficheros adjuntos: 25MB.

5. En aquellos casos en que se detecten deficiencias de tipo formal en la transmisión electrónica de los trámites a realizar, dicha circunstancia se pondrá en conocimiento de la empresa o entidad solicitante por el propio sistema mediante los correspondientes mensajes de error, para que proceda, en su caso, a su subsanación.

*Disposición adicional.*

Excepcionalmente, el Jefe del Gabinete del Diputado General responsable del programa de ayudas de que se trate podrá autorizar, a determinadas empresas o entidades obligadas de las incluidas en el apartado 1 del artículo 1 del presente Decreto Foral Resolución, a la utilización de fórmulas de presentación alternativas a la prevista en el citado apartado, dictando las instrucciones precisas al efecto.

*Amaierako xedapena.*

Foru dekretu ebazpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2011ko urtarrilaren 28a.—Markel Olano, diputatu nagusia.

(56) (1087)

*Disposición final.*

El presente Decreto Foral Resolución entrará en vigor el día de su publicación el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Donostia-San Sebastián, a 28 de enero de 2011.—El diputado general, Markel Olano.

(56) (1087)